

BALOREZKO PROPOSAMENA

AVOCADO-k eskaintzen dituen produktuak ez dute antzekotasunik beste enpresen produktu kosmetiko edo dermatologikoekin. **Kalitatea** eta **ekologismoa** helburu bezala, espazio eta kondizio natural hoberenak hautatzen ditugu gure ondasunak fabrikatzeko. Erreakzio alergikorik ez izateko, ekoizten ditugun produktu guztiak ez daramate parabenorik edota konposizio kimikorik. Gure artisau adituen eskuetatik egunero pasatzen dira eta hauek, **produktu naturalak** baino ez dituzte erabiltzen.

Horretaz aparte, **ekonomia nazionala** eta hemengo enpresak sustatzeko, *Aguacates Pineda SL*-tik (Malagan) eskuratzen ditugu ahukateak, gure bezeroei bertako produktu onenak eskaintzeko.

AVOCADO-tik, garrantzi handia ematen diogu **planetaren ingurumenari**, horregatik ingurumena zaintzeko metodo batzuk martxan jarriko ditugu, esaterako, kartoiko paketatzea erabiltzea, produktu guztiak beganoak eta animaliekin probatu gabeak izatea...

Hori dela eta, zure azala eta ilea zaintzeko produktu begano, ekologiko eta guztiz naturala bilatzen ari bazara, AVOCADO izango da zure konfiantzazko marka!. Ez bakarrik produktu guztiz naturalak eskaintzeagatik, **ahukatearen onurak zoragarriak** direlako ere. Gantz-azido ugari ditu, B, C, D eta E bitaminak dituen fruitua da. Honek esan nahi duena da, azala eta hilearentzat ezinbestekoa dela.

AHUAKATERAEN ONURA DERMATOLOGIKOAK:

- **Gantz-azido mota ugari.**

Azalari dagokionez, ahukatearen gantz-azidoak mota guztietako azalak hezeten ditu, bereziki lehor, amatatu eta ezkatatze azalentsat. Horrez gain, azido oleikoa azalaren zelula hilak kentzen ditu eta bateratzen du.

- **Aurpegi-zahartzea atzeratzen du.**

Ahuakate aurpegi maskarak erabiltzea, **aurpegi-zahartzea atzeratzen du**, adinarekin agertzen joaten diren zimurrak, obanak... beranduago agertzea eragiten du. Honek, fruituaren E bitaminari eskertzen diogu, antioxidatzaile baten moduan jarduten duelako zelulak suspertzen.

- **Aknearen kontrola.**

Azkenik, **aknea kontrolatzen du**, fruitu honek propietate antiinflamatorioak dituelako bitamina C edo K esaterako, aknea sortzen duten bakterien aurka jokatzeko dutenak.

AHUAKATEAREN ONURA KAPILARRAK:

Ahuakatea onura dermatologikoak izateaz gain, **onura kapilarrak** ere ditu, hauek haien artean:

- **Ilea gaztetzen du.**

Ahuakatea hainbat bitamina, proteina eta mineral ditu gure **ilea ondo mantentzera** laguntzen dituztenak. Oso ona da gure ilea gaztetzeko tratamenduak egiteko, gure ilearen elastikotasuna berreskuratzen laguntzen digulako.

- **Hidratazioa.**

Zure ilea hezetu nahi ba duzu, ahukatea oso opzio ona da, hau modu naturalean egitea lortzen duelako. Bere bitamina eta landare-koipeen ondorioz **hidratazio sakona** ematen digu eta ilearen lehortzea saihesten du.

- **Distiratsu eta leuna.**

Fruitu hau ezaugarri antioxidatzaile eta gantz-azidoak ditu, hauen ondorioz gure **ilea hezetu** egiten da eta bizitasun handiagoa lortzen du. Hori esan nahi duena, gure ilea argitsuagoa eta bere testura leunago eta zetadunago, horregatik errazagoa egingo zaigu eguneroko maneiua.

- Eguzkia.

E bitamina kantitate hain handia duenez **zaharkitze prozesua atzeratzea** lortzen du eta eguzkiaren esposizioa sortzen duen kaltea gutxiesten du. Gainera bere olio oso sotila da horregatik bere xurgapena errazten du.

NOLA HELDUKO DIRA PRODUKTUAK?

Avocadon eskaintzen ditugun produktuak kalitate hobeezina dute. Packaging-a ontzi soil bat baino gehiago da, gure produktua edukitzeaz gain, ontzia birziklatzeko aukera ematen dizulako. Gure produktua beste batzuen aurrean nabarmentzen da packaging on bat sortzea lortu dugulako, gure markaren zigilua bihurtu dena. Kontzeptua oso sinplea da. Gure produktuak bidaltzeko Paul Stementsek diseinatutako "The Life Box" kartoiko kutxak erabiltzen ditugu. Kartoiaren barruan haziak dituen kutxa da, eta horrela, kutxa erabili ondoren, zuzenean lorategian lurperatu daiteke eta landareak ereitea bezala izango da. Ikertu ondoren, ideia hau aukeratu genuen eta gure toke pertsonala eman genion. Erositako produktu bakoitzarekin ahukate baten hazia oparitzen dugu, eta kutxan idatzita daude honekin egin ahal dituzun proiektu desberdinak:

1. Arropa tindatzeko.

Aguakatearen hazia erabilia zure arropa tonu arrosa naturalez tindatzea lortu dezakezu, zure arropari bigarren bizitza bat emateko. Pausu hauek jarraitu hau lortzeko:

- Hazia aurrez garbitu eta sartu zure aukerako oihala ur epeletan. Kolore dardartiagoak nahi badituzu, erabili hazi freskoak.

Prestakuntza

- Lapiko batean jarri aguakate-haziak, irakin arte. Behin irakiten hasten denean, jaitsi sua eta utzi sukaldatzen 30 eta 60 minutu artean, nahi duzun kolorearen arabera.
- Denbora hori igarotakoan, kendu haziak eta sartu arropa, 10 minutuz irakindako uretan. Kolorea oso ahula dela uste baduzu eta biziago nahi baduzu, utzi denbora gehiagoz. Geroago, kendu eta ur epelez irakuzi, eta eguzkitara jarri lehertzeko.

2. Aguakatearen zuhaitza lortzeko

Fruituak eman ditzan, aguakatea lur egoki batean landatu beharko duzu. Aguakateei lur azidoak gustatzen zaizkie, 5 eta 7 bitarteko pH-a dutenak, mantenugai gehiago xurgatzea ahalbidetzen diotenak. Ziurtatu lurra ondo nahasten duzula, aske egon dadin eta landarea ondo garatu dadin.

Hauek dira jarraitu beharreko pausuak:

1. Ur ugarirekin ondo garbitu.
2. Itxi hiru zotz hezurrean, baso bat uretan bermatu ahal izateko moduan, eta behealdea bakarrik egon dadin urpean.
3. Hazia ur edalontzian sartu, leku lehor eta eguzkitsu batean. Eguzki-argi, ur eta bero asko dira hazteko osagaiak.
4. 8 aste pasatzean lehen agerraldiak ikusi ahal izango dituzu. Goiko aldea lehortu eta pitzatu egiten da.
5. Behar izanez gero, zotzak aldatu behar dira, hazia ondo lotuta eta garbi egon dadin.
6. Zurtoina gutxi gorabehera 20 cm-ra iristen denean, loreontzi batera transplantatu dezakezu, lur onarekin eta konpost pixka batekin. Transplantatzean, gogoratu aguakatearen goiko aldea lurperatu gabe uztea.